

Europako nekazaritzako elikadura-krisietarako kontingentzia-planak 15/05/22

DESKARGATU PDF

FVok EBko 5 herrialde ikuskatu ditu (Danimarka, Txekiar Errepublika, Frantzia, Herbehereak eta Eslovenia), animalia-elikaduraren eta elikagaien alarmek eragindako krisialdian kontingentzia-planetan jardunbide egokiko n arloak identifikatze aldera. Ildo horretatik, asmoa da hobeto hornitzea Europako Batasuna eta bertako estatu kideak; halatan, etorkizuneko krisiei aurre egin, osasun publikoa eta animalien osasuna hobeto babestu eta krisi horiek eragindako kalte ekonomikoa murriztu ahalko dira.

FVOren arabera:

Pentsuekin eta/edo elikagaiekin loturiko alerta-planak, kasu gehienetan, ezarrita edo amaitzeaz daude, eta krisiak kudeatzeko baliabide nahikoa dago plana betetzen dela bermatzeko.

Gaur egun, garrantzi handiagoa ematen zaio krisiak kudeatzeko erabiltzen diren tresnen elkarreragingarritasunari. Ikuskatutako estatu kide gehienetan, oraintsu berriro antolatu dira administrazioak, eta kontingentzia-planak egokitzen ari dira antolakuntza-egitura berrietara, etengabeko hobekuntza bermatzeko.

Estatu kideek, oro har, honako hauek jotzen dituzte garrantzitsutzat larrialdietarako prestatzeko:

ardurak argi eta garbi esleitzea, o antolakuntza-egitura espezifikoa izatea ("alerta-unitateak" edo talde operatiboak), informazio esanguratsua trukitzea eta jendaurrean jakinaraztea,

alserterik ez den egoeretan ere azpiegiturak eta prozedurak erabiltzea gorabeherari aurre egiteko,

alerta azkarreko sistemak erabiltzea egoera zaintzeko eta krisiak garaiz atzemateko,

datu konparagarriak eskura izatea eta egoki interpretatzea, o eskura izatea adituen zerbitzu independenteen arrisku-ebaluazioa, o argi zehaztea alerta-mailak eta horiek ezartzeko irizpideak,

eta, azkenik, kontingentzia-plana etengabe hobetzea, simulazio-jardueretan eta kasu errealetatik lortutako ikasbideetan oinarrituta.

FVOren txostena

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .

berri@elika.eus

Close

Necessary

Always Enabled